

2018-02-27KO OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko otsailaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2018-01-30).

Idazkariak adierazi du ez duela izan denborarik 2018ko urtarrilaren 30eko udalbatzaren bileraren akta prestatzeko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak aktak udaleko web-orrira igo gabe dauden galdetu dio.

Idazkariak orain bi aste web-orria begiratu zuela erantzun dio, baina oraindik igo gabe zeudela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du azken bileren aktak, azarokoa eta abendukoa, ez zeudela igota.

Idazkariak erantzun dio begiratuko duela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak lehenbailehen egiteko eskatu dio, bestela ahaztuko zaiela zer tratatu zen bileretan.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/22 DEKRETUTIK 2018/32 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2018/22 dekretutik 2018/32 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du batez ere azpimarratu nahi dutela 2018/dekretua: udaletxea berritzeko proiektua kontratatu dela eta lehen galdera dela noiz onartu den eta batzordeetan esan dela epe motzean ez dela egingo.

Alkateak erantzun dio aurreproiektua idatzi zela eta horretarako bost arkitektoei dei egin zitzaizela, eta normala dela proiektua enkargatzea aurreproiektua egin zuenari.

Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak erantzun dio hori egia dela, beti aurreproiektuari hitz egin dugula, baina ez proiektua gauzatzeari buruz. Gainera, udaleko arkitekto teknikoak esan zuela diru-laguntzak eskatzeko behintzat obraren aurreproiektua eduki behar zuela. Inork ez zuela bileretan proiektua idaztea onartu, eta orain izan dutela horren berri.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du bere udal-taldea engainatuta sentitu dela, esan ziotelako obra hori epe motzean ez zela egingo eta orain ohartu delako 2018ko aurrekontu- proposamenarekin ia 2 milioiko obra dela, eta beraiantzat gaia herritarrekin kontsultatzea lehentasunezkoa dela. Halaber, esan du obra horri ezezkoa emango diotela, eta gaiari buruz hitz egiteko eskatuko dutela. Gainera, uste dute proiektua enkargatzea ez dela oso legala, enkargatu aurretik prozesu negoziatua egin behar delako eta hiru aukera eskatu behar direlako. Esan du ere sei mila euroko aurreproiektutik laurogei milako proiektua batera pasatu dela, eta aurrekontuetan ez dagoela onartuta. Horregatik, dekretu hau deialditik kanpo uzteko eskatu du, gaiari buruz lasai hitz egiteko, eta dekretu honi buruz idazkariari txosten juridikoa prestatzeko eskatu dio.

Ainhoa Ugalde zinegotziak dekretuak aurrera egingo duen galdetu du.

Alkateak baietz erantzun dio, idazkariak ez duela kontrakorik esan.

Idazkariak erantzun dio alkatearen dekretu hauek bakarrik daudela udalbatzari jakinarazteko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu aurrera jarraituko den, aipatutako irregularitasunekin ere eta topografoak kontratua sinatu gabe.

Idazkariak erantzun dio topografoena beste kontratua dela, eta proiektua hori gauzatzeko lan topografikoak eta ikerketa geologikoak egin behar direla.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du hori ez dela prozesu normala, aurrekontuan ez dagoelako dirurik lan horiek ordaintzeko, gainera herriak jakin gabe eta oposizioko zinegotziak orain bi aste ia udalaren erdia izanik.

HIRUGARREN GAIA

“AMETSA UDAL TRINKETEKO TABERNA ZERBITZUAREN KUDEAKETA” KONTRATATZEKO IZAPIDEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2016ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Irurako Udalbatzak “Ametsa Udal Trinketeko tabernaren zerbitzua” kontratatzea erabaki zuen, behin-behinean, urtebeteko epean hain zuzen.

Kontratu hori amaituta, berriz esleipenerako izapide arrunta hastea dagokio.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, erabaki hau onartu du:

ERABAKIA

1.-“Ametsa Udal Trinketeko taberna zerbitzua kudeaketa” kontratatzea eta baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren agiriak onartzea, baita dagokion espedientearen ere. Esleitzeko prozedura irekia izango da.

2.-Esleipenaren espedientearen hasia.

Por el Pleno de este Ayuntamiento en sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2016, se acordó proceder a la contratación de la “Gestión del servicio de Bar del Trinkete Municipal Ametsa” con carácter provisional y por el periodo de 1 año.

Concluido el mismo corresponde iniciar el proceso de adjudicación ordinario.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, el siguiente acuerdo:

ACUERDO

1º.-Proceder a la contratación del servicio de “ Gestión del servicio de bar del Trinkete Municipal Ametsa” y aprobar el Pliego de Condiciones Económico-Administrativos Particulares y el expediente correspondiente. El procedimiento será el abierto.

2º.- Iniciar el expediente de

adjudicación.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEA MERKATUARI, SAN MIGEL PLAZA 11 ZENBAKIKO BEHEAN DAGOEN UDAL-LOKALAREN ERABILERAREN INGURUAN.

Mikel Iturbe zinegotziak aurka bozkatu du, kontsulta horretan zenbaitzuek parte hartu zutelako eta herriak taberna izatea eskatu duelako.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du obraren proiektua eginda dagoela eta prozesu parte-hartzailea eduki zuela baina gobernu hau sartu ondoren bazter utzi zutela. Gainera, uste dute obra handia dela eta denda txikiek ez dutela parte hartuko. Bestalde, Bilduk proposamen bat dauka orain dela lau urte.

Udalbatzak, bost (5) boto alde (PNV) eta lau (4) boto aurka (EH Bildu) edukita, hau onartu du:

AKORDIOA

ACUERDO

AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEA MERKATUARI.

1.- Realizar la siguiente CONSULTA PRELIMINAR AL MERCADO.

1- XEDEA.

Irurako Udalak lokal bat dauka San Migel plazako 11 zenbakiko behean, eta I. eranskinean jasota daude haren ezaugarriak: azalera, egokitzea, instalazioak, etab.

Zerbitzu orokorreko (elikadura, arropa, ostalaritza...) saltokiak falta direla ikusita, Udala lokalaren epe luzeko alokairua sustatzeko aukera aztertzen ari da, bertan saltoki bat jarri eta lehen adierazitako zerbitzuetako bat emateko.

1.- OBJETIVO.

Este Ayuntamiento de Irura es propietario de un local sito en bajo del edificio de Plaza San Miguel, 11 cuyas características tanto de superficie, acondicionamiento, instalaciones etc. se señalan en el Anexo I.

Ante el déficit de comercio de servicios en general (alimentación, ropa, hostelería,) este Ayuntamiento está estudiando la posibilidad de promover un arrendamiento a largo plazo del local con destino a la instalación de un comercio de servicios de los señalados.

Hori dela eta, ekimen honen xedea merkatuari zuzenean galdetzea da, udal-ekimen honetan parte hartzeko interesa duten pertsonak edo erakundeak ezagutze aldera.

2.- KONTSULTA.

Zuzeneko kontsulta honek xede bikoitza du: batetik, jarduera ekonomiko honetan parte hartu ohi duten pertsonen edo erakundeen ekimen honetan parte hartzeko Udalaren interesa jakinaraztea; eta, bestetik, ekimenean haietako zenbatek parte hartuko luketen eta etorkizuneko kontratazio-prozeduran parte hartzeko zer baldintza jarriko lituzketen jakitea.

Ekimenaren publizitatea ahalik eta komunikabiderik gehienetan egingo litzateke: prentsa, web-orriak, lanbide- edo merkataritza-elkarteak...

2.- Prozesua hastea.

Ante ello, el objetivo de esta iniciativa es realizar una consulta directa al mercado para conocer las personas o entidades que estuviesen interesadas en esta iniciativa municipal.

2.- CONSULTA.

El objeto de esta consulta directa es dar a conocer a las personas o entidades que operan habitualmente en esta actividad económica del interés municipal en esta iniciativa y conocer cuantas de ellas estarían interesadas en la misma y las condiciones que señalarían para participar en un futuro procedimiento de contratación.

De esta iniciativa se daría publicidad en todos los medios posibles: prensa, página web, asociaciones profesionales o mercantiles...

2.-Iniciar el proceso.

BOSGARREN GAIA “ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA “KONTRATATZEKO IZAPIDEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

P R O P O S A M E N A.

2018ko otsailaren 28an amaitu da etxez etxeoko laguntza zerbitzuaren oraingo kontratua.

Con fecha 28 de febrero de 2018 concluye el actual contrato para la prestación del servicio de ayuda domiciliaria.

Aintzat hartuta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legean jasotakoaren arabera udalaren eskumena dela eta zeharkako zerbitzu bat izango dela, kontratazio berrirako prozesuari hasiera eman behar zaio.

Considerando que es una competencia municipal, de acuerdo con lo señalado en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y estimándose su prestación de forma indirecta, es necesario iniciar el proceso de nueva contratación.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, el siguiente acuerdo:

ERABAKIA

1.-"Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua" kontratatzea eta baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren agiriak, Baldintza Teknikoen Plegua onartzea, baita dagokion espedientea ere. Esleitzeko prozedura irekia izango da.

2.-Esleipenaren espedientea hastea.

ACUERDO

1º.-Proceder a la contratación del servicio de " Ayuda a Domicilio" y aprobar el Pliego de Condiciones Económico-Administrativos Particulares, el Pliego de Condiciones Técnicas y el expediente correspondiente. El procedimiento será el abierto.

2º.- Iniciar el expediente de adjudicación.

SEIGARREN GAIA

2018. EKITALDIRAKO UEMAREN EKARPENA ONARTZEA.

2017ko abenduaren 16an, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2018rako kuotak onartu zituen. Irurako Udala UEMAKo kidea izanik, udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

2018rako kuota, 6.510,53 eurokoa, onartzea eta ordaintzea.

ZAZPIGARREN GAIA

2018ko MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gai honi buruz udalbatzak aho batez hau onartu du:

2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztutako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek zeregin hauetan ematen dituzten orduak eta egindako ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza-, osasun-, giza eta babes-arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta haiek eurek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginenez haratagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egitura-oztopo bat ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruan jendarte-mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatze modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira,

eta bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, Irurako **Udalak hitzematzen du**

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzekeo guneak emakumeekin partekatzekeo.
- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezzen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezzen.

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.

ZORTZIGARREN GAIA

SEAD-EN 42. URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gai honi buruz udalbatzak aho batez hau onartu du:
SEADen 42. URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Egun gutxi barru, Saharar Herriak Saharar Estatuaren (**SEAD**) urteurrena ospatuko du. Hain zuzen ere, 42 urte beteko dira estatua eratzeko eta eraikitzekeo faseak arrakastaz gaingitu eta herriak askatasuna eta erabateko subiranotasuna lortu zituenetik.

Berrogeita bi urte hauetan, Saharar Herriak bere identitate nazionala finkatzea lortu du, ahaleginari eta batasun nazionalari esker. Saharar guztiak harro egoteko moduan daude, euren erakundeek egoki funtzionatzen baitute erbestearen baldintza gogorrek eta baliabide-falta gorabehera.

Saharar Herria inoiz baino lotuago dago autodeterminaziorako eta independentziarako eskubide legitimoei, eta Marokoren aurka borrokan jarraituko du, potentzia okupatzaile hori baita Mendebaldeko Saharako errepresioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren erantzule.

Hori horrela, Europako Auzitegiak aurki epai bat emango du eta ziur asko legez kanpokotzat joko du EBk Marokorekin indarrean duen arrantza-akordioa, zeinaren bidez onura jasotzen baitu Europako arrantza-sektoreak eta, batik bat, Espainiakoak.

Erabaki horrek ondorioak izango ditu: alde batetik, justiziak baliorik gabe utzi ahal izango du sinatutako eta berretsitako tratatu bat, Nazio Batuen dotrinan

oinarritutako irizpideak alegatuz; eta, bestetik, Fronte Polisarioarentzat izugarrizko garaipen politikoa izango da.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUGU Nazio Batuek gehiago luzatu gabe eman diezaiotela behin betiko eta bidezko irtenbidea gatazka honi. Horretarako, Saharar Herriak autodeterminaziorako eskubidea baliatu beharko du erreferendum libre eta gardena eginez, amaitzeko dagoen deskolonizazio-prozesuari buru emateko.

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa.

EXIJITZEN DUGU Marokok berehala aska ditzala preso politiko eta kontzientzia-presoa saharar guztiak, eta geldiaraz ditzala espetxeetan eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketak.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeke Nazio Batuen Misioak (MINURSO) lan handiagoa egin dezala giza eskubideak kontrolatzen eta zaintzen Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan.

ESKATZEN DUGU Espainiako Gobernuak estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimo gisa; aitor dezala Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa; eta beharrezko egitasmo politikoak abiaraz ditzala, Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Bake Planean oinarrituta behin betiko eta bidezko irtenbidea lortzeko.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak espoliatzen dituela.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan diharduten enpresek errespetatzen ditzatela, alde batetik, baliabide naturalen gaineko etengabeko subiranotasuna eta, bestetik, lurralde okupatu bateko baliabide naturalen esplotazioari aplikatu behar zaizkion nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arauak.

GOGORARAZTEN DUGU Marokok ez duela inolako subiranotasunik Mendebaldeko Sahararen gainean eta EBk ezin duela Marokorekin akordiorik sinatu Fronte POLISARIOaren baimenik gabe. Gainera, EB behartuta dago printzipio horren eta arau horien urraketak sortzen duen legez kontrako egoera oro salatzen.

IRAGARTZEN DUGU SEAD aldarrikatu zeneko 42. urteurrenaren harira euskal erakunde eta elkarteetako ordezkariak Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara joango direla Saharar Herriaren borroka justuaren aldeko konpromisoari eusteko.

Onartutako adierazpenak ondoko helbideetara helaraziko dira:

a) ESPAINIAKO ERREGE-ETXEA

Zarzuellako Jauregia. Pardo Errepidea z/g. 28071 Madril

b) ESPAINIAKO GOBERNUAREN PRESIDENTZIA

Moncloa. Puerta de Hierro etorbidea, z/g. 28071 Madril

c) KANPO ARAZOETAKO ESPAINIAKO MINISTERIOA

Probintziako plaza, 1. 28012 Madril

d) EUROPAKO BATZORDEA

Federica Mogherini

Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaría

Rue de la Loi. Wetstraat 170. B-1049 Bruxelles/Brussel.
Belgique/België

e) EUSKADIRAKO SAHARAR ORDEZKARITZA

PROPUESTA DE DECLARACION INSTITUCIONAL 42 ANIVERSARIO DE LA RASD

Dentro de pocos días el Pueblo Saharaui conmemorará el Cuadragésimo Segundo Aniversario de la creación del Estado Saharaui (**RASD**), después de haber logrado superar con éxito las fases de su fundación y edificación hacia la liberación y la plena soberanía.

En estos cuarenta y dos años el Pueblo Saharaui ha logrado consolidar una identidad nacional propia gracias a los sacrificios y a la unidad nacional; cada saharauí debe sentirse orgulloso del funcionamiento de sus instituciones nacionales a pesar de las duras condiciones del exilio y de la falta de recursos.

El Pueblo Saharaui está más que nunca apegado a sus legítimos derechos a la autodeterminación y a la independencia y continuará la lucha contra Marruecos, potencia ocupante, responsable de la represión y el expolio de los recursos naturales del Sahara Occidental.

En este contexto, el Tribunal Europeo de Justicia está próximo a emitir una sentencia en la que probablemente declarará ilegal el acuerdo de pesca que la UE mantiene vigente con Marruecos y del que se beneficia el sector pesquero europeo pero, sobre todo, el español.

Las consecuencias que se derivan de esa decisión suponen: por un lado, que la justicia pueda anular un tratado firmado y ratificado alegando criterios basados en la doctrina de Naciones Unidas; y, por otro, una gran victoria política del Frente Polisario.

Por todo ello,

INSTAMOS a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y definitiva de este conflicto, que pasa por el ejercicio del derecho de autodeterminación del Pueblo Saharaui mediante la celebración de un referéndum libre y transparente como culminación del proceso de descolonización inacabado,

REAFIRMAMOS que el Frente Polisario es el único y legítimo representante del Pueblo Saharaui,

EXIGIMOS a Marruecos que lleve a cabo la inmediata liberación de todos los presos políticos y de conciencia saharauís, y cese las violaciones de los

derechos humanos en sus prisiones y en los territorios ocupados del Sahara Occidental,

SOLICITAMOS que la Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum del Sahara Occidental (MINURSO) amplíe sus funciones y cometidos en el control y seguimiento de los Derechos Humanos en los territorios ocupados del Sahara Occidental,

SOLICITAMOS al Gobierno Español que otorgue un estatus diplomático a la representación del Frente Polisario en España, como único y legítimo representante del Pueblo Saharaui; que reconozca la República Árabe Saharaui Democrática y que promueva las iniciativas políticas necesarias para lograr una solución justa y definitiva sobre la base del cumplimiento del Plan de Paz de las Naciones Unidas para el Sahara Occidental.

DENUNCIAMOS el expolio de los recursos naturales del Sahara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos.

SOLICITAMOS a las empresas que operan en el Sahara Occidental que respeten el derecho de soberanía permanente sobre los recursos naturales y las reglas del derecho internacional humanitario aplicables a la explotación de recursos naturales de un territorio ocupado.

RECORDAMOS que Marruecos no ostenta en ningún caso la soberanía sobre el Sahara Occidental y la UE no puede firmar ningún acuerdo con Marruecos sin el consentimiento del Frente POLISARIO. Además, la UE está obligada a denunciar toda situación ilícita que se desprenda de la violación de este principio y estas reglas.

ANUNCIAMOS que con motivo del 42 aniversario de la proclamación de la RASD representantes de las distintas instituciones y entidades vascas viajarán a los campamentos de población refugiada en Tinduf para renovar su compromiso con la justa lucha del Pueblo Saharaui.

Os proponemos que enviéis las declaraciones aprobadas a las siguientes direcciones:

a) CASA REAL ESPAÑOLA

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

b) PRESIDENCIA DEL GOBIERNO DE ESPAÑA

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

c) MINISTERIO ESPAÑOL DE ASUNTOS EXTERIORES

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

d) COMISIÓN EUROPEA

Federica Mogherini

Alta representante de la Unión para Asuntos Exteriores y Política de Seguridad

Rue de la Loi. Wetstraat 170. B-1049 Bruxelles/Brussel. Belgique/België

e) DELEGACIÓN FRENTE POLISARIO EN EUSKADI

BEDERATZIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Idazkariak adierazi du ez dagoela txostenik.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

a) Alkateak adierazi du bihar arratsaldean izango dela Ogasun Batzordea 2018ko aurrekontuak aurkezteko, gero apirileko udalbatza egiteko.

EH Bilduren partaideek erantzun dute ezin dutela etorri. Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du gastuak aztertzen ari direla eta horietako batzuk handiak direla eta kontsultak ari direla egiten eta irregulartasun batzuk antzeman dituztela. Denbora gehiago behar dutela eta astelehenean idatzizko proposamenak ekarriko dituztela.

b) Olaia Nieto zinegotziak alkatearen prozesu parte-hartzailea idatziz jasota uzteko eskatu duela.

c) Olaia Nieto galdetu du martxoaren amaieran udalbatza egingo den.

Alkateak baietz erantzun dio.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago hemen: "www.irura.eus udala-udalbatzak" .

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du 20:00an. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA